

PRENTSA-OHARRA

Familiendako Arte-lantegi bat egingen da heldu den larunbatean, Kondestablen, 5 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendua, Pablo Sarasate konpositore eta biolin-jotzailearen gainean

Doan da izena ematea eta edozein civivox zentrotan egin daiteke lantegia hasi baino 24 ordu lehenago bitarte.

Civivox zentroen sareak jarraitzen du, beste lauhileko batean, Pablo Sarasate konpositore eta biolin-jotzaile iruindarraren berri ematen. *Sarasatearen ondarea* zikloan, oraingo honetan, familiendako bi arte-lantegi eta bi kontzertu –Joaquín Maya Musika Eskolako ikasleek emanak– egingen dira, bai eta Museo-aretorako bisita gidatuak ere, martxotik maiatzera.

Lartunbatean, 11:30etik 13:00etara, izanen da familiendako lehenbiziko arte-lantegia, *Sarasate bildumagile* izenburupean. Ana Rosa Sánchez arte-hezitzaileak emanen du, eta bertan bildumagile-kutxa sortzaile bat egingen dute, Pablo Sarasateren biografia eta biolin zein beste objekturen bildumak ezagutzera emateko. Bi arte-lantegiak 5 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude, eta haietan haurrak helduek lagunduta egonen dira. Doan da izena ematea, eta lantegia hasi baino 24 ordu lehenago bitarte egin behar da. 16 toki eskaini dira. Bigarren lantegia martxoaren 24an izanen da, 11:30etik 13:00etara hau ere, eta euskaraz izanen da. *Sarasateren koaderno*a du izenburua, eta bertan bisita gidatu bat egingen da Pablo Sarasate Museo-aretoa, konpositore iruindarraren objektuak ezagutzeko, eta horrela, sortu ahal izateko musika-motiboekin eta irudiekin apaindutako koaderno batzuk. Amaia Artica haur-hezitzaileak emanen du saioa.

Pablo Sarasateri eskainitako zikloari buru emateko, Joaquín Maya Musika Eskolako ganbera-musikako ikasleek bi kontzertu emanen dituzte. Kondestablearen Jauregian arituko dira, martxoaren 14an eta maiatzaren 30ean, asteazkenekin, María José Ros irakaslearen ikasleak; hiruhileko honetan eta ikasturte osoan zehar eskolan jorratutako musika-konposizioen pasarte hautatuak joko dituzte. Bi kontzertuak 19.30:00ean hasiko da, eta sarrera libre izanen da.

Jarduera horiei guztiei Sarasateri buruzko erakusketa iraunkorra gehitu behar zaie, Kondestablearen Jauregiko Museo-aretoa ikusgai dagoena. Erakusketa, musikariak berak 1893. urtean dohaintzan emandako objektuek osatua, asteartetik larunbatera egoten da irekita,

1. orrialdea, (e)tik 2





11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Sarrera doan da. Horrez gain, Civivox zentroen sareak bisita gidatu doanekoak antolatzen ditu gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez, hainbat asteburutan, apiriletik maiatzera bitarte.

SARASATEREN ONDAREA

Familiendako arte-lantegiak

- **Sarasate bildumagile**

- **Martxoak 10 (larunbata). 11:30 – 13:00. Pablo Sarasate Museo-aretoa**
- 5 eta 10 urte bitarteko haurrendako, helduek lagunduta daudelarik. Izena aurrez eman behar da, doan, edozein Civivoxetan (16 leku, lantegiko) Lantegia hasi baino 24 ordu lehenago bitarte eman daiteke izena.
- Nork emana: Ana Rosa Sánchez, arte-hezitzailea

- **Sarasateren koadernoak**

- **Martxoak 24 (larunbata). 11:30 – 13:00. Pablo Sarasate Museo-aretoa**
- 5 eta 10 urte bitarteko haurrendako, helduek lagunduta daudelarik. Izena aurrez eman behar da, doan, edozein Civivoxetan (16 leku, lantegiko) Lantegia hasi baino 24 ordu lehenago bitarte eman daiteke izena.
- Nork emana: Amaia Artica, haur-hezitzailea

Ganbera-musika

- **Joaquín Maya Musika Eskolako ganbera-musikako ikasleak**

- **Martxoak 14 (asteazkena). 19:30. Kondestablearen jauregiko ekitaldi-aretoa**
- Sarrera librea

- **Joaquín Maya Musika Eskolako ganbera-musikako ikasleak**

- **Maiatzak 30 (asteazkena). 19:30. Kondestablearen jauregiko ekitaldi-aretoa**
- Sarrera librea

Iruñean, 2018ko martxoaren 8a 2018

